

Bero-beroan

Midas bilkuran krisiaz

MIDASEK, Eremu Urriko eta Eskualdeko Hizkuntzetan Argitaratzen diren Egunkarien Europako Elkar-teak, urteko batzarra egin berri du Bartzelonan. Egunkari bat gutxiago izan da bilkuran, Belfastoko *Lá* desagertu baita. *Berriak* urtero bezala parte hartu du. Internet eta papera izan dituzte gaitzat, bereziki horien garapena, krisia kontuan hartuta. Bestalde, Midas saria jaso du Salvador Cardus soziologo, kazetari eta irakasleak katalanezko hedabideak sustatzen egindako lanagatik. Lituaniar polonieraz argitaratzen den *Kurier Wilénski* egunkaria prest agertu da datorren urteko bilkura antolatzeko.

“Ilargiaren sekretua” katalanez

PIRRITX ETA PORROTX pailazoek 2004an estreinatu zuten *Ilargiaren sekretua* filma. Orain katalanera bikoiztu dute (*El secret de la lluna*) eta Herrialde Katalanetako zinema aretoetan proiektatzen ari dira.

Bera UEMArako bidean

BERAKO (Nafarroa) Euskara Batzordeak luzatu zion Udalari UEMAn sartzeko proposamena. EAE-ANVko alkateak, alderdi bereko hiru zinegotziek eta Aralarreko biek egin zuten proposamenaren alde. EA eta EAJ abstenitu egin ziren arrazoi ekonomikoak agudio hartuta.

BAHEA

Rafael Bengoa Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo sailburuak *Noticias de Gipuzkoan* esanak: “Bai, Euskaditik joan egin da jendea hizkuntzarengatik –nik bi ezagutzen ditut– pentsatzen zutelako aurrera egiteko baldintzek ez zutela zentzurik, medikuntza hamar edo hamabost urtez ikasi ondoren. (...) Aberastu egin behar da lotura profesionala Espainia eta Europarekin eta ez dugu hizkuntzarengatik gure buruetan itxita egon beharrik. Hurrengo Lan Eskaintza Publikoetan, euskarak ez du orain arte eduki duen maila izango”.

Isabel Celáa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak *El Diario Vascon* esanak: “Euskararekiko hurbilketa ez da garatzen ari. Eskolatik bertatik estimu hori landuko dugu. Euskara maitatzea. Inposatzen den hizkuntza ez da behin ere maitatua izango eta hizkuntza maitatua gehiago erabiliko da”.

Itziar Laka hizkuntza ikerlariak *UKn* esanak: “Jendeak, oro har, haurrak ezer jakin gabe jaiotzen direla eta pixkanaka-pixkanaka ikasten dutela uste du; baina haurrek ez dute horrela ikasten, ikasketa berez ez da gauzak gehitzea. Berez, esparru bat daukagu eta horretatik, baliagarri ez zaizkigun aukerak ezabatuz joaten gara. Adibide gisa, Japonian jaiotzen diren haur txikiak ederto bereizten dituzte [r] eta [l] eta beren garapen fonologikoa da bi fonema horien bereizketa nolabait ‘desikastea’, beraz, Japoniako umeak heldu japoniarrek bereizten ez dituzten gauza fonetikoak bereizteko gai dira”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Greba orokorraren irakaspenak eta abisuak

Nork bere balorazioa egingo du langileek hartutako lehen neurri horrek, greba orokorrak, izandako oihartzunaz. Sindikatuek une larrietan baino ez dituzte deitzen greba orokorrak eta oraingoa, zalantzarik gabe, une larria da. Bere mugen gainetik, erantzuna inportantea izan da, herrialde bakoitzean desberdina. Grebatik irakaspen bat eta hainbat abisu atera daitezke etorkizunera begira, izan ere, krisiak langileak eta herritarrak zigortzen jarraituko du eta beharrezkoa izango da erantzun sozialerako neurriak artikulatzen jarraitzea.

Lehenengo irakaspena: ekintza bateratuaren beharra dago mobilizazioak eta grebak eraginkorrak izan daitezken. Sindikalgintza abertzaleak ekintza bateratua planteatzen jakin du eta babes politiko eta sozialak jaso ditu. Ondorioz deialdiari emandako erantzuna garrantzitsua izan da. Ekintza bateratua eraginkorragoa izango litzateke CCOO eta UGT integratzea lortuko balu, Hego Euskal Herriko hainbat eremutan indar handia baitute. Sindikalgintza abertzalearen eta estatalistaren estrategiak ezberdinak dira. Dena den, euskal langile klasea egoera larrian dagoenez, garrantzitsua litzateke ekintza bateratuak egiten saiatzea.

Greba orokorra patronalari emandako abisua ere izan da, esanez “honaino iritsi gara”, eta ez dutela onartuko xantaia gehiago negoziazio kolektiboetan, ez enplegu finakoak ezabatuz enplegu prekarioak lortzeko, ezta soldaten behar-kada adosteko ere. Nafarroako eta Gasteizko gobernuentzat ere izan da abisua, kapitalismoaren zerbitzura dauden politika ekonomikoak eta soziolaboralak alda ditzaten, gizartearen gehiengoaren, langile klasearen eta herri sektoreen interesei zerbitzatzeko.

Juan Mari Arregi

ETA publikoki agertu da hausnarketara

“ESTRATEGIA politiko-armatu egokia finkatzea” da ETA egiten ari den hausnarketaren helburua eta udarako amaitua izango duela jakinarazi du erakunde armatuak *Garari* eskainitako elkarrizketan. Elkarrizketa luzean denetarik jorratzen da, halakoetan ohikoa den legez, baina bereziki azpimarratzen da egoeraren desblokeoa “herri honen eskubideak aintzat hartzen dituzten indarren dispersioaren amaieratik eta beren aktibaziotik” etorriko dela. Aitortzen du garai luzean desblokeo horretarako EAJren zain egon izan dela, baina jadanik barneratu duela “PNVri itxopen aritzea alferrik dela”. Alde horretatik, egoki ikusten ditu ezker abertzaleak “bere herri proiektua eta Euskal Herria eskenatoki demokratiko batera eramateko burutu ditzakeen hausnarketa eta argipenak”.

Adierazpen hauek guztiak bat etor daitezke azken hilabete luzeetan ildo subiranistaren inguruan egiten ari diren hausnarketekin. Joan den aste-ko ARGIAN, esate baterako, Sabin Intxaurre EAKo buruzagiak apustu horren aldeko mezua luzatu zuen esanez, “ez harritzeko hemendik bi urte barruko Nafarroako zein EAEko foru eta udal hauteskundeetan [ezkerreko alderdi independentisten] eskaintza bateratu bat aurkezten bada”.

ETAren elkarrizketan, beraz, ez da berrikuntzarik alde horretatik, askotan aipatu baititu halakoak, baina testuinguru politiko honetan, badirudi ezker abertzale osoak berretsi egiten duela EAJtik ezkerredera diren indar soberanisten metaketaren bidea. Beste gauza bat da metaketa hori laguntzeko meniarik eskaintzeko prest ote den, baina prozesuaren –hala hitz egin ote litekeen ere ez dago argi– hastapen une honetan halakorik argitzea ere gehiegi eskatzea litzateke seguruenik.



Bi etakideek aitortzen dute, neurri batean bederen, ahuldade operatiboa “ETAK ere azken hileotan ez duelako etsaiari min egiteko behar adinako ildo sendorik erakutsi”. Bere ekintzei buruz gutxi hitz egin ohi badu ere, elkarrizketan dio bere garaian hiru aldiz saiatu zela Jose Maria Aznar aurka lur-aire misilez erasotzen, baina hiruetan huts egin zuela.

“Gaueko” eta “Argi” moduan azaltzen diren elkarrizketatuek, halaber, salatzen dute etakideek lehergailuen berri telefonoz ematerakoan, segurtasun indarrek deiak eteten dituztela hauen lokalizazioa egin nahian, eta horrekin arriskuan jartzen dituztela herritarrak. *El Correo* eta Nafarroako Unibertsitatearen aurkako atentatuetan, adibidez, hori gertatu zela azaldu dute.

EUROPAKO hauteskundeetako kanpaina aurrera doa, ia harkabeen bada ere. Europar Batasun osoan abstentzioa oso handia izango dela ez da zalantzarik, eta oro har, partehartzeak ez atzera egitea da agintarien helburu nagusia. Espainian, gainera, Iniziatiba Internazionalista-Herrien Elkartasunaren (II-HE) kasua ere hor dago, eta parte hartze txikiak honen ordezkari

erraztu dezake. Gaitza da jakitea honek parlamentaririk lor dezakeen hala ez, estatuan izan dezakeen sostenguaz ezer gutxi baitakigu. Euskal Herrian legez kanpoko ezker abertzaleak azken urteetan lortutako emaitza onenak bilduta ere 160-170.000 botoren bueltan ibil liteke. Aspaldikoz, hautesleria horrek izan dezake motibazio egokia bozkatzeko, baina hauteskunde hauen giro hotzean jendetza bozkatzera eramatea ere ez da batere samurra. Ekainaren 7an gehien begiratuko diren datuetakoak izango dira.

Aukera politiko bat da legez kanpoko ezker abertzalearentzat, baina horrek, dena den, ez du inondik inora konpontzen Alderdien Legeak ekarritako eskubide urratze larriak. *El Diario Vascok* igandean azaltzen zuenez, Auzitegi Konstituzionalak II-HEri buruzko epai honekin Estrasburgoko Auzitegiak ilegalizazioei buruz eman behar duen epaia baldintzatu nahi du, besteak beste, Auzitegiak ezker abertzaleari arrazioia ematea zailduz.

JON ANZA-REN desagerpena ere apurka ari da egiten lekua informazioaren eguneroko agendan. ETAK jakinarazi duenez, Anza bere militantea da eta apirilaren 18an abiatu zen Baionatik Okzitaniako Tolosara, han erakunde-ari diru kopuru bat emateko asmatan. Baina ez zen heldu, ez orduan eta ez jarritako beste bi hitzordutara ere. Anza espetxean izan zen 1982tik 2002ra eta egun Iparraldean bizi zen. ETAren salaketaren arabera, polizia bazuen militantzia horren berri eta zuzenean zerikusirik du desagerketarekin. Hipotesi denak airean dira, baina ez litzateke Espainiako segurtasun indarrek desagerketekin zerikusirik duten lehen aldia.